



BALIO PROPOSAMENA:

Gure produktua bere kasa arropa plantxatzen duen armairua da. Erosotasuna, praktikotasuna eta denbora ez galtzea proposatzen diegu bezeroei produktu hau eskainiz. Honek ur-lurrunaren bidez funtzionatzen du, arropa behin zintzilikaturik dagoenean martxan hasten da, botoi bati emanaz. Plantxatzeaz gain, usain ona ere ematen dio arropari. Plantxatu ez ezik, zapatak garbitzeko funtzioa ere betetzen du, honek behealdean duen kaxa batean.

Diseinuaren ezaugarriak bezeroen eskuetan uzten ditugu, hauek tamaina, kolorea eta materialak direlarik. Tamaina minimoa 2 metro izango da, txikiagoa bada ezin baititu bere funtzioak bete. Eskura dauden materialak honakoak izango dira: altzairu herdoilgaitza, zura, eta aglomeratua.

Gure baliabide iturriak garbiak dira. Ez dugu erabiliko pertsona esplotatuek ateratako materiala eta gure lan baldintzak onak izango dira, gure langileak gustura sentitzeko eta errendimendu altua izateko.

Garraio bideen kostua murrizteko eta hemengo lanpostu eta industria sustatzeko asmoz gure lantegiak Euskal Herrian kokatuko ditugula erabaki dugu.

Giza eskubideak babesten eta ingurumenarekiko kaltegarriak ez diren neurriak bultzatzen ditugulako aukeratuko dute gure enpresa, eta ez lehiakideena.

Gure berezitasuna produktuak %100 bertakoak direla da.

